

Liburuak

KRITIKA

Sartu-irtena

Hemeroteka

Aritz Galarvaga

EZAGUTZEN GENUEN Pilar Iparragirre, aldizkari honi esker ezagutu ere. Kazetari gisa, beraz, nahiz eta literaturari buruzko orrietan jarduten zuen. Xabier Mendiguren editoreak liburu ahantzien Sautrela hartan aipatu zuelako jakin genuen gero nobela bat bazuela, 1980 urrun haietan idatzia, *Hilerriko jolasak* hauxe. Begira-begira, ikusi dugu Felix Likiniano militante anarkistari buruzko biografia bat eta deportazioari buruzko beste saio bat ere argitaratu dituela. Eta konprobatu dugu, tamalez konprobatu ere, fikzioaren eremuetan egindako sartu-irtena Bartleby harena bezalakoa izan dela, ale bakarrekoa.

Hilerriko jolasak, hortaz, 1960ko hamarkada hasierako hiri bazterreko langile auzo batean kokatzen da, bertako bizimodua harrapatzen du bi narratzaileren eskutik. Kontakizuna ahots bitan doa aurrera, paraleloan: auzora iritsi berri den neskato batek haren eta lagun gorabeheren berri emango digu; eta narraztaile orojakile batek familia baten egunerokoa fokatuko du. Paian-paian doaz lerrook aurrera, tupustean, ekaitz perfektua ematen den arte: ordura arteko hari ikusezin guz-

tiak txirikordatzten dira. Dena gertatzen baita egun berean, deabruren baten liburuan txarrerako bidea idatzirik balego bezala, maiatzaren lehenaren bezpera batean.


Batek pentsa dezake liburuaren meriturik handiena eskaintzen digun umeen begirada partikular hori dela, umeen esperientziak umeen ahotan jartzeko ausardia eta abildadea dela. Ikustea nola bizi duten kalea, nola eskola; ikustea nola bizi duten helduen mundu bat; nola heriotza bera ere gehitzen duten ohiko jardun ludikora; imajinazioa deitzen diogun horrek nola blaitzen dien guztia eta gehiago.

Baina horien aldean –sinesgaitz tarteka, behartuegi marteka–, interesgarriago egin zait eleberriak ematen duen paisaia soziopolitikoak, garai bat nola erretratatzten duen hasiera batean bigarren maila batean dagoela dirudien arren. Auzoa aipatu dugu, jende iritsi berriaz gainezka. Extremadura edo antzeko parajeetatik etorriak, baina baita ere oso urrun egon ezin daitezkeen baserrietatik jaitsiak. Nola hizkuntzek eta ohiturek bereiziko dituzten, ez horratik patrikak. Eta nola sartzen diren konfliktuan osagai berriak ere, nola izatea txima luzeak, aditza musika arrotz deitoragarria izan daitekeen errefusarako aitzakia, etorkinen ondorengo izatea bezainbeste.

1989an argitaratu zen nobela, 1993an izan zuen bigarren argitarapena. Horrelakoetan geratzen den zalantza da nora eramango zuen Iparragirre literaturak, eleberri hau ibilbide literario baten hasiera izan balitz eta ez sartu-irtena.



Hilerriko jolasak.
Pilar Iparragirre.
Elkar, 1989.
170 orrialde.
9,95 euro.



txalaparta



www.txalaparta.com